

Kontsumorako kredituari buruzko Europako informazio normalizatua

Caser Cling_Cling kreditu-txartela

WiZinkek emandako Caser Cling_Cling kreditu-txartelari aplikatu ahal zaio

Oharra: Dokumentu honetan nabarmendutako informazioa bereziki garrantzitsua da.

2. oharra: Lehen hizkia letra larriz idatzita duten hitzak edo hitz-taldeak dokumentu honen amaierako glosario batean definitzen dira.

1. Mailegu-emailearen eta/edo bitartekariaren nortasuna eta harremanetarako xehetasunak

Mailegu-emailea.	WiZink Bank, S.A.U.
Helbidea.	C/ Ulises, 16-18, 28043 Madrid España
Webgunea.	www.wizink.es
Kredituaren bitartekaria.	WiZink Bank SAU erakundeak hainbat finantza-bitartekariarekin egiten du lan; beraz, kontratuan eragiketan parte hartzen duen bitartekariaren izena, egoitza soziala eta IFK kontsultatu ahalko dira.

2. Kreditu-produktuaren ezaugarri nagusien deskribapena

Kreditu mota.	Caja de Seguros Reunidos, Compañía de Seguros y Reaseguros SA (CASER) enpresak Caser Cling_Cling programaren barruan emandako aurrezpen-aseguruaren produktu batekin lotutako kreditu-txartela.
Kredituaren zenbatekoa guztira. Hau da, kreditu-kontratu baten esparruan kontsumitzailearen esku jarritako zenbateko guztien batura edo gehieneko zenbatekoa.	Kreditu-muga Bankuak egindako kreditu- eta kaudimen-ebaluazioaren arabera esleituko da, kontsumitzaile eskatzailearen ezaugarri partikularren arabera; hasierako gehieneko muga 6.000 eurokoa izango da. Berriztagarria da. Kreditu berriztagarrien ezaugarri nagusia kreditu-muga bat ezartzea da, eta eskuragarri dagoena bat dator hasiera batean muga horrekin. Karguak (erosketak, dirua ateratzea, transferentziak, interes eta gastuen likidazioak, etab.) egin ahala, murriztu egiten da, eta ordainketekin (aldizkako ordainagirien ordainketa, erosketak itzultzea, etab.) berritzen da. Beraz, txartelaren Titularrak aldizka ordaintzen dituen kuoten zenbatekoak kreditu eskuragarriaren parte izatera itzultzen dira.
Funtsen erabilera arautzen duten baldintzak. Hau da, noiz eta nola lortuko duen dirua kontsumitzaileak.	Kontratua onetsi ondoren, Bankuak Titularraren esku jarriko du kreditu-muga zehatz bat, eta hori erabili ahalko da, bai zuzenean, ordainketak helbideratzeko kontuan ordainduta, eta bai hirugarrenei ordaintzeko saltegi arruntetan edo elektronikoen, edota Bankuak pertsona fisiko baten (Titularra) izenean jaulkitako txartel jakin baten bidez. Titularrak txartel gehigarriak eskatu ahalko ditu hark izendatutako pertsona fisiko baten edo gehiagoren izenean, eta horrek berekin ekarriko du Titularrak txartel gehigarrien erabileratik eratorritako karguak onartzea. Titularrak eragiketa hauek egin ahalko ditu txartelarekin:

<p>Funtsen erabilera arautzen duten baldintzak.</p> <p>Hau da, noiz eta nola lortuko duen dirua kontsumitzaileak.</p>	<p>a) Ondasunak eta zerbitzuak ordaindu Visa / MasterCard sistemetara atxikitako edozein establezimendutan (erosketak saltegi fisikoetan edo Interneten).</p> <p>b) Dirua lortu kutxazain automatikoetan eta bulego itunduetan.</p> <p>c) Transferentziak egin txartelaren kontuaren kargura, une bakoitzean ezarritako muga eta baldintzekin.</p> <p>Eragiketa horiek guztiak egin ahalko dira bai txartela erabilia eta bai Bankuak Titularraren esku jartzen duen beste edozein ordainketa-tresnaren bidez..</p> <p>Titularrak eta gehigarriek egindako erosketa oroko xedapen gehigarri bat izango du, 5 eurora arteko zenbatekoarekin (aurrerantzean, "biribiltzea"), eta hori aldeek adostuko dute. Biribiltze hori 2 euroko zenbatekoarekin hasiko da, eta Titularrak aldatu ahalko du Caser Cling_Cling programa aplikatuta. Biribiltzearen aldaketak WiZinkek aplikatuko ditu bezeroak eskatu eta hurrengo fakturazio-ziklotik aurrera. Biribiltzearen zenbatekoak ez ditu interesak eta komisioak sortuko. Caser Cling_Cling programaren arabera, WiZinkek fakturazio-zikloan zehar sortutako biribiltzea transferituko dio Titularraren Caser aurrezpen-aseguruari fakturazio-epe bakoitza bukatu eta hurrengo 7 egunetan. Aurrekoari kalterik egin gabe, edozein arrazoirengatik bezeroak egindako erosketen zenbatekoa itzuli behar bada, biribiltzea ez da itzuliko, eta Caser Aurrezki-aseguruan geldituko da.</p> <p>Titularrak espresuki edo isilbidez eman ahalko du eragiketak egiteko baimena. Baimen hori emateko, dagokion egiaztagiria sinatu beharko da, txartelaren PIN kodea sartu beharko da edo Bankuak ezarritako eta zuzenbidearekin bat datorren autentifikazio biometrikorako edozein metodo (sinadura biometrikoa, hatz-marka digitala, etab.) erabili beharko da, bai establezimendu komertzialean eta bai dagokion kutxazain automatikoan. Saltegi elektronikoetako ordainketa egiteko, eragiketa bakoitzean egiaztapen-kodea espezifiko bat erabiltzeko eskatu ahalko dizugu, eta kode hori zure mugikorrean jasoko duzu. Bestela, Bankuak <i>Contactless</i> teknologia ("kontakturik gabeko ordainketak) sartu badu zure txarteletan, eta establezimenduak teknologia horretara egokitu badira, Bankuak une bakoitzean finkatutako zenbatekoen ordainketak onartuko dira, eta ez da beharrezkoa izango eragiketa balioztatzea PIN kodearen bidez, egiaztagiria sinatzea edo txartela ordainketa-terminal batean sartzea. Bankuak eskumena izango du txartelaren <i>Contactless</i> funtzionalitatea eteteko, eta hori Titularrari jakinaraziko dio behar adinako aurrerapenarekin. Eragiketaren zenbatekoa Titularrak baimendutako erosketa-fakturetan jasotakoa izango da, edo, kutxazain edo terminal automatikoen kasuan, kutxazain edo terminalak horretarako emandako egiaztagiritan erregistratutakoa.</p> <p>Bankuak, justifikatu gabeko atzerapenik gabe, egin ez diren edo oker egin diren ordainketa-eragiketen zenbatekoa itzuliko dio bezeroari, eta, hala badagokio, kontuko saldoa lehengoratuko du, eragiketa okerra gertatu izan ez balitz bezala.</p>
<p>Kreditu-kontratuaren iraupena.</p>	<p>Kreditu-txartelaren kontratuak iraupen mugagabea du, eta, ondorioz, indarrean jarraituko du Titularrak suntsiarazi arte. Hori edozein unetan egin ahalko da, aurreabisurik gabe, eta Bankuak jarraibide hori bete beharko du 24 ordutik beherako epean, Titularraren eskaeratik zenbatzen hasita, eta baliogabetutako txartelak itzuli egin beharko dira. Halaber, Bankuak amaitutzat eman ahalko du txartelaren kontratua edozein unetan, arrazoirik alegatu gabe,</p>

<p>Kreditu-kontratuaren iraupena.</p>	<p>Titularrari zuzendutako idatzizko aurreabisuaren bidez, gutxienez bi hilabeteko aurrerapenarekin. Aurrezpen-asegurua eteten bada Caser Cling_Cling programaren barruan, Kreditu-txartelaren kontratua amaituko da programa eten eta hurrengo 2 hilabeteak igarotzean, eta epe horretan ez dira aplikatuko haren baldintzak. Kontratua suntsiaraziz gero, eta bertan aurreikusitako eta aldizka kobratutako komisio eta gastuei dagokienez, Titularrak soilik horien ebazpen-datara arteko zati proportzionala ordainduko du. Komisio eta gastu horiek aldeztu aurretik ordaindu badira, Bankuak Titularrari itzuli beharko dizkio proportzionalki.</p> <p>Dena dela, kreditua lortzeko erabilitako txartelaren plastikoak baliozkotasun-epe mugatua du, eta bertan dago idatzita; ezingo da erabili data horren ondoren. Iraungi aurretik, Bankuak Titularrari bidaliko dio zaharra ordezkatzeko duen txartel berria. Bankuaren eskumena izango da hura berritzea iraungi ondoren. Edonola ere, Titularrak txartela suntsitu beharko du epe horren ondoren. Ez badu hori egiten, ondoren egindako diru-eskuratze guztiak haren kargura izango dira.</p>
<p>Epeak eta, hala badagokio eperako ordainketak egiteko hurrenkera.</p>	<p>Honako hau ordaindu beharko duzu:</p> <p>Titularrak erabaki dezake, bai aktibazioaren unean eta bai Bankuari jakinarazita hileroko Ordainagiriaren Ordainketa Data baino gutxienez lau (4) egun balioudun lehenago, honako ordainketa-modalitate hauetako zein erabili nahi duen:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● ORDAINKETA OSOA: Xedatutako Kreditua osoa hileroko zorduntzea dakar. ● ORDAINKETA ATZERATUA: txartelaren erabileratik eratorritako Xedatutako Kredituaren ordainketa atzeratzea dakar. Ordainketa-modalitate horren barruan, Titularrak aukera hauek izango ditu: <ul style="list-style-type: none"> a) Hilean zenbateko finko bat ordaintzea. Titularrak hilean zenbateko finko bat ordaintzea erabaki ahalko du. Likidazio Datan aukeratutako zenbateko finkoa gutxienezko ordainketaren zenbatekoa baino txikiagoa bada (ikusita hurrengo c) letra), Ordainagiriaren zenbatekoa gutxienezko ordainketarena izango da. b) Hilean ehuneko bat ordaintzea. Titularrak hilean ehuneko bat ordaintzea erabaki ahalko du, Xedatutako Kredituan oinarrituta kalkulaturik. Ehuneko hori bostaren multiploa izango da, eta gutxienez % 5ekoa. <p>Likidazio Datan ordaindu beharreko zenbateko osoa handitu egingo da, hala badagokio, kontratatutako Ordainketa Atzeratuaren Zerbitzu Gehigarriari dagozkien kuotekin. Zenbateko hori gutxienezko Ordainketarena baino txikiagoa bada, Ordainagiriaren zenbatekoa gutxienezko ordainketarena izango da.</p> <p>c) Gutxienezko ordainketa: Titularrak gutxienezko zenbatekoa ordaintzea erabaki ahalko du Fakturazio-epe bakoitzean. Gutxienezko zenbateko hori dagokion Likidazio-epe bakoitzean kalkulaturik da.</p> <p>Gutxienezko ordainketa hileroko kalkulaturik da, eta zifra hauetatik handiena izango da: i) 18 € edo; ii) Likidazio Datan honako kontzeptu hauek batuta lortutako zifra:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Xedatutako Kredituaren % 1, sortutako interesak, ordaindu gabeko kuoten erreklamazio-gastuak, biribiltzeak era ordainketa babestuen aseguru-prima kenduta; gehi ● Fakturazio-epeari dagozkien interesak; gehi ● aurreko fakturazioaren gutxienezko ordainketa, ez bada ordaindu; gehi ● ordainketa babestuen aseguru-prima; gehi

Epeak eta, hala badagokio eperako ordainketak egiteko hurrenkerak.

- Fakturazio-epearen ordaindu gabeko kuotaren erreklamazio-gastua; gehi
- biribiltzea; gehi
- Ordainketa Atzeratuaren Zerbitzuen kuota.

Titularrak Kreditu Txartela eskatzeko unean ez badu espresuki adierazi ordainketa-modalitaterik, ulertuko da ORDAINKETA OSOAREN modalitatea aukeratu duela.

Titularrak aukeratutako modalitatea edozein izanda ere, Bankuak zerbitzu gehigarriak ("Ordainketa Atzeratuaren Zerbitzu Gehigarriak") eskainiko dizkio, eta horiek aukera emango diote lerroa aldi baterako handitzeko edo Transakzio baten edo gehiagoren ordainketa atzeratzeko. Horiek, edonola ere, Bankuarekin adostu beharko dira. Honako hauek dira zerbitzu osagarri horiek:

(i) Erosketa erraza: Titularrak Bankuarekin adostu ahalko du erosketa bat edo gehiago atzeratzeko (zenbateko jakin batetik aurrera), eta zenbateko hori itzuliko du hileroko kuota finkoen bidez. Horiek, kapitalaz gain, barne hartuko dituzte interes eta/edo komisio aplikagarriak.

(ii) Eskudiru-intsuldaketa kuota finkoetan ordainduta: Titularrak Bankuarekin adostu ahalko du haren Kreditu-lerroaren zenbateko jakin bat Helbideratzeko Kontu Korrontera intsuldatzeko, eta zenbateko hori itzuliko du hileroko kuota finkoen bidez. Horiek, kapitalaz gain, barne hartuko dituzte interes eta/edo komisio aplikagarriak.

(iii) CrediMás: Titularrak Bankuarekin adostu ahalko du kreditu-muga aldi baterako handitzeko. Kasu horretan, zenbateko hori Helbideratzeko Kontu Korrontera intsuldatuko da, behin eta osorik, eta zenbateko hori itzuliko du hileroko kuota finkoen bidez. Horiek, kapitalaz gain, barne hartuko dituzte interes eta/edo komisio aplikagarriak.

Interesak honela kalkulatu dira:

Ordainketa atzeratuz gero, Xedatutako Kredituak interesak sortzen ditu egunero, eta hileroko likidatzen dira benetan igarotako egunen arabera. 365 eguneko urte natural baten arabera kalkulatu dira, eta 366 egunen arabera bisurteen kasuan. Karguen baliozkotasun-data transakzioarena izango da, eta interesak sortuko dira ordainketa-egunera arte. Interesak honako formula honen arabera kalkulatu dira: $i = (c \cdot r \cdot t) / 365$ (366 bisurte bada), non c = aldiaren batez besteko saldoa den, r = urteko interes-tasa nominala eta t = likidazio-aldiaren egun naturalen kopurua. Ordainketa atzeratuaren hileroko kuotari dagozkion interesak eta, hala badagokio, egindako eragiketekin lotutako komisio eta gastuak gehituko zaizkio. Biribiltzeak ez du interesekin sortuko.

Aurrekoa gorabehera, 10. klausulan aurreikusitako Ordainketa Atzeratuaren Zerbitzuren bat kontratatu baduzu, baldintza hauek aplikatuko ditugu:

- Ordainketa Atzeratuaren Zerbitzua "Erosketa Erraza" bada, Bankua interesak sortzen hasiko da kontratazio-dataren hurrengo egunetik aurrera, lehen Fakturazio-epearen azken egunera arte, biak barne. Hurrengo Fakturazio-epeetarako, interesak likidatzeko 30 eguneko epeak erabiliko dira, eta 360 eguneko kalkulu-oinarria erabiliko da.

<p>Epeak eta, hala badagokio eperako ordainketak egiteko hurrenkera.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • “Eskudiru-intsuldaketa kuota finkotan ordainduta”, “CrediMás” eta “Crédito Now zerbitzuaren” Ordainketa Atzeratuaren Zerbitzuaren kasuan, ez da interesik sortuko kontrataziotik indarreko Fakturazio-epea amaitu arte, eta epe horri dagokion lehen kuota ere ez da sortuko. Une horretatik aurrera, interesak sortzen hasiko dira, eta horiek likidatzeko 30 eguneko epeak erabiliko dira, 360 eguneko kalkulu-oinarriarekin, eta zerbitzuaren kuotak zordunduko dira. <p>Kontsumitzaileak ordaindu beharko dituen interes eta/edo gastuak: Titularraren ordainketak lehentasun honekin zenbatuko dira Kreditu-txartelaren erabileren artean: Ordainketa Atzeratuaren Zerbitzu Gehigarrien kuotak, Likidazio Datako promozio eta eskaintzekin lotutako Xedatutako Kreditua eta Likidazio-epeko Xedatutako Kreditua. Amortizazioak, halaber, hurrenkera honi jarraituko dio: interesak, biribiltzea, komisioak eta gastuak eta printzipala.</p> <p>Ez ordaintzeen kasuan, hurrenkera Ordainagiriaren arabera izango da, ordaindu gabeko Ordainagiri zaharretatik hasita.</p>
<p>Ordaindu beharko duzun zenbatekoa guztira. Hau da, mailegatutako kapitalaren zenbatekoa gehi kredituarekin lotutako interes eta gastuak.</p>	<p>Ordaindu beharreko zenbatekoa guztia Xedatutako Kreditua izango da gehi ordaintzeko moduaren eta Titularrak izan ditzakeen komisio eta gastuen arabera sortutako interesak.</p>
<p>Diru-itzultzeek ez dakarte kapitalaren berehalako amortizazioa.</p>	<p>Kontratu honek ez du aurreikusten hari jarraikiz xedatu den kredituaren zenbateko osoa itzultzeko bermea.</p>
<p>Dibisa-mota.</p>	<p>Ordainketei begira, euroa izango da erreferentziako dibisa.</p>

3. Kredituaren kostuak

<p>Kreditu-kontratuari aplikatzen zaion tasa zorduna.</p>	<p>Urteko interes-tasa nominala: % 18,36.</p>
<p>Urteko tasa baliokidea (UTB) UTB kredituaren kostu osoa da, kredituaren zenbateko osoaren urteko ehunekoan adierazita. UTBk hainbat eskaintza alderatzeko balio du.</p>	<p>Ordainketa guztira: UTB: % 0 Ordainketa atzeratua: UTB: 19,99%.</p> <p>Inguruabar hauek bat egiten badute:</p> <ul style="list-style-type: none"> • emandako kredituaren muga 1.500 €; • denbora-zenbaketa 365/366 eguneko urte bateko oinarrian; • emandako kredituaren mugaren erabateko erabilera Kreditu-txartelaren kontratuaren indarraldiaren lehen egunetik; • emandako kredituaren mugaren erabateko amortizazioa hileko 12 kuota finkotan; • kredituaren indarraldia adostutako epean zehar eta aldean betebeharrak betetzea kontratuan adostutako baldintza eta epeetan; • interes-tasa nominala eta gainerako gastuak mantentzea hasierako mailan. <p>Kasu horretan, Titularrak hau ordainduko luke: 137,78 euroko hileko 11 kuota eta azken kuota 137,74 eurokoa. Urtearen amaieran 1.653,32 euroko zordundutako zenbateko osoa ordainduko zenuke (horietatik 153,32 euro interesei dagozkie).</p>

<p>Urteko tasa baliokidea (UTB) UTB kredituaren kostu osoa da, kredituaren zenbateko osoaren urteko ehunekoan adierazita. UTBk hainbat eskaintza alderatzeko balio du.</p>	<p>WiZinkek interesak kapitalizatu ahalko ditu hilero, eta, beraz, Likidazio-epetan, ordaindu gabeko interesak Xedatutako Kreditu Totalean sartuko dira, eta interes berriak sortuko dituzte, , aplikatzekoa den interes-tasa nominalean.</p>
<p>Kreditua berez edo eskainitako baldintzetan lortzeko nahitaezkoa da zerbitzu osagarria Bermatzeko aseguru-poliza bat kontratatzea? Mailegu-emaileak ez baditu zerbitzu horien kostuak ezagutzen, ez dira sartzen UTBn.</p>	<p>Ez.</p>
<p>Lotutako kostuak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Jaulkipen- edo mantentze-komisioa: 0 €. • Ordaindu gabeko kuota erreklamatzeko kostua: Ordaindu gabeko zorra berreskuratzeko egindako kudeaketengatik: 35 € gehienez. • Titularrak eta/edo baimendutako ordezkariak eskatutako laburpenen kopiak egin eta bidaltzeagatik komisioa. Ez du kosturik izango kopia eskaera-dataren aurreko laburpenari badagokio. Gogoan izan azken 12 hilabeteetako laburpenak eskuragarri dituzula webgunearen zure eremu pribatuan: 2 € laburpeneko • Muga gainditzeagatik komisioa: komisio hau kobratuko dizugu Kreditu-lerroaren muga 20 euro baino gehiagotan gainditzen baduzu, erosketen edo erabileren kontzeptuan. Muga gainditzen den Fakturazio-epe bakoitzean, soilik behin kobratu ahalko dugu komisio hori: 20 €. • Txartelaren kopia igorri eta bidaltzeagatik komisioa: 10 €. • Dirua nazioko eta nazioarteko kutxazainetan edo transferentzia bidez eskuratzeagatik komisioa: eskuratutakoaren zenbatekoaren % 4,5 eta gutxienez 4 €. Horrez gain, kutxazainaren jabea den erakundeak ezarritako komisioaren % 100 jasanaraziko dizugu. Komisio hori kutxazainaren pantailan agertuko da eragiketa amaitu aurretik, zuk baimena emateko. www.wizink.es/tarifas webgunean aurkituko duzu WiZinkekin akordioa duten erakundeen zerrenda, baita bakoitzaren komisioaren zenbatekoa ere. • Alerta-zerbitzua. Mugikorreko jakinarazpenak erosketak egin eta dirua ateratzeagatik eta Titularrak eskatutako beste jakinarazpen batzuk: 1,5 € hilean. • Ordainketa Atzeratuaren Zerbitzu Gehigarrien irekiera-komisioa. Zerbitzua irekitzeak dakartzan kudeaketengatik: 25 € gehienez. • Ordainketa Atzeratuaren Zerbitzu Gehigarriak aldeztu aurretik kitatzeko komisioa: aldeztu aurretik itzultitako kredituaren zenbatekoaren % 1 (% 0,5 ordaintzeko dagoen epea urtebetekoa edo txikiagoa denean). • Txartel gehigarri bat jaulki eta bidaltzeagatik komisioa, Titular Nagusiak hala eskatuta: 10 €. • Euroa ez den beste txanpon batekin egindako erosketen edo eskuratutako diruaren dibisa aldatzeko komisioa, erosketaren edo dibisan eskuratutako zenbatekoaren gainean: % 2 • Kontratuaren aldaketa izapidetzeko zerbitzuen komisioa: 10 €.

<p>Lotutako kostuak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Paperezko laburpena egiteagatiko frankeo-gastua: 0,30 € • Gogoan izan azken 12 hilabeteetako laburpenak eskuragarri daudela webgunearen eremu pribatuan. • Beste erakunde baten txartel edo kontuan funtsak kargatzeagatiko komisioa: 2 €
<p>Ordaintzeko modu espezifikoa bat erabiltzeagatiko kostuen zenbatekoa (adibidez kreditu-txartel bat).</p>	<p>Urteko jaulkipen- edo mantentze-komisiorik gabe.</p>
<p>Aurretik aipatutako eta kreditu-kontratuarekin lotutako gastuak aldatzeko baldintzak.</p>	<p>Bankuak baldintza horiek alda ditzake, eta Titularrari jakinaraziko dio, aldeztu aurretik eta banan-banan, kontratuaren aldaketa oro, eta bereziki interes-tasarekin, komisioekin edo jasanarazi daitezkeen txartelaren gastuekin lotutakoak. Bankuak proposatutako aldaketa oro Titularrari jakinaraziko zaio, proposatutako aplikazio-data baino bi (2) hilabete lehenago gutxienez. Dena dela, berehala aplikatu ahalko dira Titularrarentzat argi eta garbi mesedegarriagoak diren aldaketak. Titularrak aldaketak onartu dituela ulertuko da, baldin eta aldaketak indarrean sartu aurretik ez badio Bankuari jakinarazten ez dituela onartu. Banakako jakinarazpen hori posta elektronikoa bidez edo beste edozein jakinarazpen-bitarteko elektronikoa edo telematikoa baliokideren bidez egin ahalko da.</p>
<p>Ordainketa atzeratuaren kostuak. Ordainketa bat ez egiteak ondorio larriak izan ditzake, eta kreditua lortzea oztopa dezake.</p>	<p>Titularrak ez badu ordainketa egiten, Bankuak eskubidea izango du honako hauek egiteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • aldi baterako blokeatu txartel nagusia eta gehigarriak, ez ordaintzearen ondorio gisa; • Helbideratzeko Kontu Korrontetik kobratu ordaindu gabeko zorra baino txikiagoak diren Ordainagiriak; • Ordainketa Data aldatu aurreragoko Fakturazio-epetarako, aintzat hartuta ez ordaintzearen hurrengo Fakturazio-epa nabarmen murriztu daitezkeela ondorioz. Edonola ere, aldeztu aurretik jakinaraziko zaizu Ordainketa Data berria. Ordainketa guztiak egin ondoren, berriro aldatu ahalko da, elkarrekin adostuta, aurreko klausulan aurreikusitakoarekin bat; • ordaindu gabeko kuota erreklamatzeko gastua jasanarazi. Gastu hori behin bakarrik jasanaraziko da ordaindu gabeko eta erreklamatzeko Ordainagiri bakoitzeko. Gastu hori jasanaraziko da ez ordaintzearen lehenengo hilabetetik aurrera, eta betiere Bankuak dagozkion kobrantza-kudeaketak egin baditu; • gutxieneko ordainketa automatikoki ezartzea Titularrak ez badu ezarritako ordainketa egin hurrengo Fakturazio-epa amaitu aurretik; • Ordainketa Atzeratuaren Zerbitzu Gehigarriak kitzatzea, baldin eta kontratatu badira. Kasu horretan, Titularrak ordaintzeke dagoen zorra ordaindu beharko du, gutxieneko ordainketa egiteko moduarekin bat, eta Txartelari aplikatu ahal zaizkion interes-tasak, komisioak eta gastuak aplikatuko zaizkio; • txartelaren erabileratik eratorritako eta zordundutako zenbatekoak kargatu edo konpentsatu, Bankuak haren izenean irekitako edozein ageriko kontu edo eperako gordailutan. • ordaintzeke dagoen zorra atzeratzeko akordio bat eskaini; • egindako edozein sustapen-eskaintza edo -ordainketa indarririk gabe utzi.

<p>Ordainketa atzeratuaren kostuak. Ordainketa bat ez egiteak ondorio larriak izan ditzake, eta kreditua lortzea oztopa dezake.</p>	<p>Ez-betetze larritzat joko da gutxienez lau Ordainagiri ez ordaindu izana dagozkien Ordainketa Datetan. Kasu horretan, Bankuak Kreditu-txartela baliogabetu ahalko du, Kontratua amaitutzat eta galdagarritzat jo ahalko du eta erreklamatu ahalko du, baita judizialki ere, ordaintzeke dagoen zorraren zenbateko osoa (Kreditu-txartela edo Ordainketa Atzeratuaren Zerbitzu Gehigarriak erabiltzetik eratorrita zor diguzun zenbateko oro).</p>
--	--

4. Beste alderdi juridiko garrantzitsu batzuk

<p>Atzera egiteko eskubidea. Kreditu-kontratuan atzera egiteko eskubidea duzu 14 egun naturaleko epean.</p>	<p>Bai.</p>
<p>Segurtasun-neurriak.</p>	<p>Titularrak, bere erantzukizunpean, txartelen kontserbazioa eta erabilera ona ziurtatzeko beharrezko neurri guztiak hartuko ditu, horiek galdu, ebatsi edo lapurtzea edo hirugarren pertsonak PIN kodea ezagutzea ekiditeko. Ez du PIN kodea idatziko txarteletan edo normalean haiekin batera gorde edo eramaten dituen beste objektu batzuetan.</p>
<p>Txartela galdu, lapurtu edo baimenik gabe erabiltzea.</p>	<p>Titularrak justifikatu gabeko atzerapenik gabe jakinarazi beharko dio txartela edo hura erabiltzea ahalbidetzen duten bitartekoak galdu direla, lapurtu dizkiotela edo iruzurrerako edota baimenik gabe erabili direla, Bankuak hura blokeatu eta baliogabetu ahal izateko. Jakinarazpena egiteko, 900 811 272 telefono-zenbakira edo, aldatuz gero, Bankuak jakinarazten duenera deitu beharko da. WiZink Onlinen ere jakinarazi ahalko da. Jakinarazpena egin ondoren, Titularrak ez du inolako erantzukizunik izango txartelaren bidegabeko erabilerari dagokionez, betiere ez badu zabarkeriaz edo fede gaiztoz jokatu. Kasu horietako erantzukizuna: a) Dirua ateratzearen edo antzeko transakzioen gaineko erantzukizuna: txartelaren Titularrak hirugarren batek jakinarazpenaren aurretik iruzurrez dirua atzeratzeko edo antzeko transakzioak egiteko eragindako galerak, gehienez ere 50 euroko mugarekin, Ordainketa Zerbitzuei eta Finantza Arloko Presako beste Neurri batzuei buruzko azaroaren 23ko 19/2018 Errege Lege Dekretuan ezarritakoarekin bat. Halaber, ez du erantzukizunik izango jakinarazpenaren ondoren egindako gainean. b) Erosketen gaineko erantzukizuna: Titularrak ez ditu bere gain hartuko txartela iruzurrez erabilia egindako erosketen karguak. Aurrekoari kalterik egin gabe, Titularrak aitortu gabeko edo oker egindako karguak ahalik eta lasterren idatziz baieztatzeko betebeharra, eta Bankuari agintaritzza eskudunaren aurrean egindako salaketa aurkeztu beharko dio. Bankuak eskumena du aginduak ez egikaritzeko eta/edo txartela aldi baterako edo behin betiko blokeatzeko, baldin eta uste badu transakzio bat susmagarria dela, zalantzan jartzen badu hura egin duen pertsonaren nortasuna edo Titularrarekin ezin baditu baieztatu egiazkotasuna eta egiletasuna.</p> <p>Titularrak Bankuari jakinarazi beharko dizkio hark baimendu gabeko eragiketak, justifikatu gabeko atzerapenik gabe, 13 hilabeteko epearen barruan, gertatzen direnetik zenbatzen hasita.</p> <p>Jakinarazpen hori egin ondoren:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eragiketa Titularrak hasi badu, Bankuak berehala itzuliko du baimendu gabeko eragiketaren zenbatekoa Helbideratzeko Kontu Korrontera. Dena dela, Bankuak eskubidea izango du Titularrak baimenik eman ez duela egiaztatzeke ikerketak egiteko. Ikerketa

<p>Txartela galdu, lapurtu edo baimenik gabe erabiltzea.</p>	<p>horien emaitza gisa ondorioztatzen bada Titularrak baimendu egin duela eragiketa, Bankuak berriro egin ahal izango du dagokion kargua.</p> <ul style="list-style-type: none"> Eragiketa onuradunak hasi badu, Titularrak gehienez ere zortzi asteko epea izango du, transakzioa kargatzen den datatik zenbatzen hasita, Bankuari hori itzultzeko eskatzeko. Bankuak, bere aldetik, gehienez ere 10 egun baliouduneko epea izango du, itzultzeko eskaeratik zenbatzen hasita, eragiketaren zenbatekoa oso-osorik itzultzeko, edota Titularrari jakinarazteko horri uko egin izanaren arrazoi objektiboak. <p>Jakinarazpena epez kanpo egiten bada, Titularrak ezingo du eskatu baimendu gabeko edo oker egindako eragiketa zuzentzeko.</p>
<p>Diru-itzultze aurreratua. Edozein unetan kreditua, osorik edo partzialki, alde zuzenetik itzultzeko eskubidea duzu.</p>	<p>Bai.</p>
<p>Datu-base baten kontsulta. Mailegu-emaileak berehala eta kargurik gabe jakinarazi behar dizu datu-base baten kontsultaren emaitza, kreditu-eskaera ukatzen bada mota horretako kontsulta batean oinarrituta. Hori ez da aplikatuko informazio hori hedatzea debekatzen badu lege batek edo Europar Batasuneko zuzenbideak, edo ordena publikoaren edota segurtasun publikoaren helburuen aurka egiten badu.</p>	<p>Kreditu-arriskua aztertzeko prozesuan kaudimen ekonomikoari eta kreditu-arriskuei buruzko fitxategiak kontsultatzen dira. Iruzurra prebenitzeko fitxategiak ere kontsultatu ahalko dira. Eskaera ukatzen bada, Titularrari doan jakinaraziko zaio, gutun edo mezu elektronikoko baten bidez.</p>
<p>Kreditu-kontratuaren proiektu baterako eskubidea. Eskubidea duzu, eskaera egin ondoren, doan jasotzeko kreditu-kontratuaren proiektuaren kopia bat. Xedapen hori ez da aplikatuko eskaeraren unean mailegu-emaileak ez badu Kreditu-kontratua sinatu nahi zurekin.</p>	<p>Bai.</p>

Erabilitako terminoen glosarioa.	<p>Ordainketa Data: data horretan Ordainagirian adierazitako zenbatekoa kargatuko da.</p> <p>Likidazio Data: Fakturazio-epearen azken eguna.</p> <p>Ordainagiria: zure Kreditu-lerroa erabiltzetik eratorritako eta ordaindu beharreko zenbatekoa, aukeratutako ordainketa-modalitatearen arabera kalkulatuta. Barne hartzen ditu interesak, komisioak, gastuak eta, hala badagokio, kontratatutako Ordainketa Atzeratuaren Zerbitzu Gehigarriari dagozkien kuotak.</p> <p>Xedatutako Kreditu Osoa: Likidazio Datan Kreditu-lerroan erabilitako zenbatekoa, hauek barne: a) aurreko Fakturazio-epeko Xedatutako Kreditua, b) Fakturazio Epean egindako transakzioak, c) Fakturazio Epean sortutako interesak, komisioak eta gastuak, d) biribiltzea eta e) hala badagokio, Ordainketa Atzeratuaren Zerbitzu Gehigarrien kuotak eta zerbitzu horietan ordaintzeke dagoen zenbatekoa. Zenbateko horien baturari aurreko hilabetean ordaindutako ordainagiriaren zenbatekoa kentzen zaio, baita Likidazio-epean egindako beste edozein ordainketa ere.</p> <p>Xedatutako Kreditua: Xedatutako Kreditu Osoa da, Ordainketa Atzeratuaren Zerbitzu Gehigarrien kuotak eta zerbitzu horietan ordaintzeke dagoen zenbatekoa izan ezik.</p> <p>Fakturazio-epea: Txartel-kontuaren mugimenduak (karguak eta ordainketak) jasotzen dituen epea; hori Laburpen bakoitzean adieraziko da, adierazitako epearen lehen eta azken eguna barne. Fakturazio Epeak ez du zertan bat etorri hilabete naturalarekin. Txartelaren Ordainketa Datari dagokionez, hileko lehen Likidazio Data ezarriko da, eta, handik aurrera, hileko Likidazio Data bakoitzaren arteko hilekoaldiak zehaztuko dira.</p> <p>Helbideratzeko Kontu Korrontea: WiZink ez den kreditu-erakunde bateko kontu korrontea, non Kreditu-txartelaren ordainketak helbideratuta dituzun.</p>
---	---

5. Informazio gehigarria, finantza-zerbitzuak urrutitik merkaturatuz gero

a)) Mailegu-emailearen berrikuspena

Nortasuna.	WiZink Bank, S.A.U.
Helbidea.	Ulises, 16-18, Madrid
Merkataritza-erregistroa.	Madrilgo Merkataritza Erregistroa, 12.468 liburukia, 0. liburua., 178. orria, 8. a., M-198598 orrialdea.
Gainbegiratze-agintaritza	Espainiako Bankua. Espainiako Bankuaren Kreditu Finantza Erakundearen Erregistroan inskribatuta 0229 kodearekin.

b) Kreditu-kontratuari buruz

Atzera egiteko eskubidea erabiltzea.	Titularrak, kontratua sinatu eta hurrengo 14 egun naturaletan zehar, atzera egin ahalko du, kostu gehigarririk gabe, idatzizko jakinarazpen bat bidalita Bankuaren egoitza sozialera, eta txartela itzuliko du. Kasu horretan, Titularrak erabilitako zenbatekoak eta itzulera-datara arte pilatutako interesa ordaindu beharko ditu, ordainketa osoaren bidez, kitapena jakinarazi eta hurrengo hogeita hamar egunetan.
---	--

b) Kreditu-kontratuari buruz

Mailegu-emaileak zurekiko harremana finkatzeko oinarri gisa onartzen duen legeria, kreditu-kontratua sinatu aurretik.	Espainiako legeria.
Kreditu-kontratua arautzeko legeria aplikagarria eta/edo auzitegi eskuduna.	Kontratu hau Espainiako lege eta auzitegiek arautuko dute, eta aldeak horien menpe jartzen dira espresuki.
Hizkuntza-araubidea	Kontratuaren informazioa eta terminoak gaztelaniaz emango dira, betiere bi aldeek ez badute beste zerbait adosten. Kreditu-kontratuak irauten duen bitartean, Bankua gaztelaniaz komunikatuko da Titularrarekin.

c) Errekurtsoari buruz

Erreklamazio eta errekurtsoak aurkezteko judizioz kanpoko prozesuak eta horietarako sarbidea.	Espainiako Bankuan Erreklamazioen Zerbitzua dago; Espainiako Bankuaren gainbegiratze-erakundea da, eta haren egoitza helbide honetan dago: calle Alcalá, 48 – 28014 Madrid. Haren aurrean bezeroek kexa eta erreklamazioak aurkez ditzakete idatziz. Aurretik aipatutako erakundearen aurrean erreklamazioak aurkeztu aurretik, Bankuaren Bezeroentzako Arreta Zerbitzuarekin jarri behar duzu harremanetan (Calle Ulises, 16-18, 28043 Madrid), haren betebeharra baita zure erreklamazioa artatu eta ebaztea, hura jaso eta bi hilabeteko epean, edo une bakoitzean aplikagarria den araudiak ezarritako epe laburrago batean.
--	--

Informazio hori baliozkoa izango da gehienez ere 14 egun naturaleko epe luzaezinean, informazioa ematen den datatik zenbatzen hasita.

Espresuki adierazten dut Europako informazio normalizatua hau jaso dudala Caser Cling_Cling kreditu-txartelaren kontsumorako kredituari buruz, beharrezko aurrerapenarekin, kontratua sinatzeari buruzko erabaki informatu bat hartu ahal izateko.

Data:

Izen-abizenak: